



**KARMELE EMANALDI BEREZIA • Espainia**  
Asier Altuna (zuzendaria eta gidoilaria)  
Jone Laspiur, Eneko Sagardoy, Nagore Aranburu eta Javier Barandiaran (aktoreak)  
Marian Fernández (ekoizlea) eta Kirmen Uribe (idazlea)



Marián Fernández, Javier Barandiaran, Jone Laspiur, Asier Altuna, Eneko Sagardoy, Nagore Aranburu, eta Kirmen Uribe idazlea. ALEX ABRIL

# Ontziak erretzen

SERGIO BASURKO

Karmele eta bere familia Frantzian babestu dira gerraren ondorioz etxetik kanporatuak izan ondoren. Bertan, Karmelek Txomin ezagutuko du, tronpeta-jotzaile profesionala berau. Venezuelan bizi ondoren, bikotea etxera itzultzen da diktaduraren aurka borrokatzeko. Horixe kontatzen du Kirmen Uriberen “Elkarrekin esnatzeko ordua” eleberrian oinarritutako filma, Urresti-Letamendi familiaren benetako bizitza gogoratuz. Asier Altuna zuzendariak kontatu duenez, “liburua irakurri nuenean, txunditu egin ninduen Letamendi-Urresti familiaren historiak. Harrigarria da zenbat ekintzatan parte hartu zuten eta zenbat abentura bizi izan zituzten: frankistek etxetik bota, erbestea, II. Mundu Gerra, Paris, Venezuela, espioi lanetan hasi... Izugarritzko material mordoa zegoen

Kirmenen obran, film baten batez besteko iraupenak barnean hartzeko ezinezkoa. Hartara konturatu nintzen –gogoratzen du Altunak–, ez nuela dena kontatu behar, ez zegoela dena esan beharrik. Istorioa pertsonaien bidez kontatu nahi nuela”. Uribe pozik dago Altunak bere liburuez egin duen moldaketarekin, “oso ederra da Asierrek egin duen irakurketa. Gehiago jo du pertsonaiengana, beldur sentipen eta poz txikietara”, adierazi du. “Halako historiak belaunaldiz belaunaldi kontatzen diren horietakoa da. Agian iraganaren zantzuak izan ditzake, baina gaur egun Palestinan gertatzen ari denarekin, zentzu handia daukala iruditzen zait”, airean utzi du pilota idazleak. Jone Laspiurrek eta Eneko Sagardoyk abesten, dantzatzen eta instrumentuak jotzen dituzten pertsonaiak interpretatzeko erronkari aurre egin

zioten. “Eskolaz kanpoko filmaketa bat izan zen, ez nuen inoiz pentsatu tronpeta jotzen ikasiko nuenik”, azaldu du Enekok. Laspiurri, Karmeleren rolak arrasto handia utzi dio –“nire ibilbide laburreko erronkarik handiena izan da”–, bereziki bere amonak eta “kultura sortu zuten, oso indartsuak izan ziren eta orain arte aipatu ez diren emakume asko oso gogoan izan ditut. Garrantzitsua da haien eginbidea aintzatestea”. Sagardoy bat dator iritziarekin, eta pozik dago istorioak emakume baten ikuspegia ematen duelako: “duela urte batzuk gudari tronpetista eta espioi bati buruzko film bat izango litzateke”. Nolanahiere, ezin aipatzeko utzi filmaren alderdi artistikoa. Bikainak dira KUP koruaren eta Argia dantza taldearen agerraldiak. Baita, besteak beste,

Eñaut Agirre bertsolariaren interpretazio zoragarria pelikulako eszenarik seduzitzaileenean. Edota pertsonaia nagusiei sostengua ematen dieten Kepa Errasti eta Iñaki Beraetxe aktore saiatuak. Donostian aurkeztu ondoren, filmak bere ibilbideari ekingo dio eta oraingoz Aljeriako eta Argentinako jaialdietara joango da. Altunaren ustez “oso bertakoa eta oso gurea den zerbait kontatzen badugu ere, istorio unibertsala da, eta Euskal Herri- tik kanpo ikuslearentzat erakargarria izan daitekeela uste dut”.



## Itsasontzi lehorreratua

1940ko amaieran, agintari frankistek Ondarroako arrantzale bati arrantzara irtetea debekatu eta ontzia konfiskatu zioten. Duintasun ekintza batean, familia-ontzian berak eraikitako ontziari su ematea erabaki zuen. Kirmen Uribe idazleak ‘Elkarrekin esnatzeko ordua’ eleberrian berreskuratu zuen bere jaioterriko pasarte hau. Arrantzale haren alaba Karmele da.



## Próximamente en cines

PRÍNCIPE · TRUEBA · ANTIGUO BERRI

Sade Cines



Rondallas  
1 ene 2026



Las Corrientes  
Próximamente



La Grazia  
16 ene 2026



Bugonia  
7 nov 2025



Un simple accidente  
16 ene 2026